

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

Izena duen guztiak izana du

Baliabideak: Internet, udalerriko mapa, fitxak, argazki kamera

Helburuak:

- Erreken izenen nondik norakoak ulertzea, herriko kulturari lotuz.
- Toponimoen esanahia eta jatorria identifikatzea eta ezagutzea.

Landutako gaitasunak:

- Informazioaren tratamendua eta teknologia digitalaren erabilera
- Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia
- Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia

Toponimia: Mapa batean agertzen diren izen berezien bilduma da. Halaber, toponimia izen hauen azterketa da ere.

Demagun udaletxeko Euskara Zerbitzuak herriko iturri eta erreken toponimia ikertzeko zuen taldea beka batez saritu duela. Beraz, erreka izenak eta ur ibilguan aurkitzen diren ezaugarri garrantzitsuenen (leku, espezie, ondare kultural, azpiegiturak...) izenak jaso, ikertu eta azalpen testu txukun batean aurkeztu behar duzue.

Ekintza

Toponimia ikerketa bat burutu ondoren, oso garrantzitsua da ikerketa txostena udaletxeko kutxa batean sartuta ez geratze (zorritzarez, sarritan gertatzen den moduan). Hortaz, gure lana zabaltzeko, hurrengo jarduera burutu dezakegu:

- Talde bakoitzak bere ikerketan identifikatutako erreka eta iturrien toponimoak zerrendatu eta ondoren guztien artean mapa batean kokatzen saiatuko zarete.
- Erreka eta iturri bakoitzaren laburpen fitxa bat osatu guztien artean, ondoren mapan kokatu ahal izateko. Posible baltz argazkiekin osatu.
- Azkenik, ikastetxeko txoko berdean edo leku ikusgarri batean eskegi.

Adibide bat:

Erandio, Txorierrri harana eta Uribe Kosta eskualdeen artean dago; baserri-gune zabal eta aberatsa izateaz gain, **Asuko ibaiak** eta **Bilboko itsasadarrak** ureztatzen dute Erandio. Asuko ibaiak gaur egun garrantzi gutxi badu ere, aberastasun ugari ekarri zizkion Erandiori. Asuan zegoen portuari esker, Erandiok itsasoz komunikatzen zuen Txorierrriko harana. Ur gehiago zeraman ibaiak garai batean eta itsasoko mareak ere igarri egiten ziren gaur egun baino gehiago. Hori dela eta ibai honen inguruan hainbat portu eta ibar garrantzitsu izan ziren, zeinetatik itsasontzi handiak gora-behera ibiltzen ziren. Ibar eta portu aipagarrienetako **Erandiondoko** zen, gaur egun merkataritza gune handia dago bertan. Aipatzekoak dira, baita, **Olpe**, **Errotazarreta**, **Sakoni**, **Plaiabarriondo**,

Pasajebarria eta Gastañeta leku-izenak, denak Asuko ibaiak ureztatzen zituen ibar eta portuak baitziren. Baina ibaiak garrantzia galdu ahala, toponimo batzuk ere desagertuz joan dira. Gainerako auzoetan ere erreka garrantzitsuak daude: **Giltza** edo **Giltzeko erreka**, **Loiu** eta **Erandio** banatzen dituena. Izena errota zaharretako ura eten egiten duten tresnari zor dio, giltzari alegia. Giltzari esker ura isuri eta errota ibiltzen zen. Ugariak dira Bizkaian izen bereko errekek baina beste batzuk daude ere: **Potxin**, **Urgitxi**, **Ibarra**, **Zubietako erreka (Lertutzako erreka)**, **Izardui**, **Bolua** (Leioa eta Erandio banatzen ditu Martiartu auzoan), **Kareagaerreka (Arrigunagako erreka)**, **Urederra**, **Askaiturri** eta **Ugartebasoko erreka**.
(iturria: Erandioko leku-izenak)

Jarraitu urrats hauek:

- Herriko mapa kartografikoa aztertu.
- Interneten informazioa bilatu.
- Ahozko informazioa bilaketa, identifikazioa eta informazioaren bilketa (aiton-amonekin elkarrizketa, adibidez).
- Testua idatzi.

Azalpen testuak jaso behar duen informazioa:

- Erreka eta iturrien izen eta kokapena.
- Ur ibilguan aurkitzen diren azpiegituren deskribapen laburra (errotak, fabrikak, baserriak, presak...).
- Babestutako ondare historiko eta kulturala.
 - Animalia zein landare espezie esanguratsuenak.
- Errekaren iragana eta oraina konparatu (kontserbazio egoera, zein jarduera burutzen ziren, aisia...)

Laburpen fitxa

	Erreka/iturriaren izena
	Izen horren jatorria
	Hokapena
	Babes mota
	Animalia eta landare aipagarriak
	Azpiegitura aipagarria
	Dharra (ingurumen arazoak, mehatxuak, hobekuntza proposamenak...)